

POLITIKARI

**MIREN AZKARATE** Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua

**«Gaztetatik hil arte gizon konprometitu izan zen»**

«Martin Ugalde idazle, euskaltzale eta kazetariaren konpromisoa nabarmendu behar da orain. Gazte-gaztetatik eta bere bizitzako azken urteetarako berarekin eraman duen konpromiso hori, bizitzan hainbat lekutara eta zereginetara eraman duena. Gazteendako zerbait uzteko eta aipatzeko Ugalde bezalako pertsona handiek herriaren alde izandako konpromisoa da orain azpimarratu behar dena».

**EUSKO ALKARTASUNA**

**«Euskal kulturaren erreferentzia izan da»**

«Samina eta atsekabea adierazten dugu Martin Ugalde euskaltzale, kazetari eta alderdiko lagunaren heriotzagatik, eta familiari doluminak azaldu. Euskal kulturaren erreferentzia izan da, bizitza osoan herriarekin, euskararekin eta giza eskubideen defentsarekin konprometitu. *Egunkaria*-ko ohorezko lehendakaria euskarazko kazetaren aurkako kanpaina gogorren jomuga izan zen. Exilio luzean Eusko Jaurlaritzako lehendakariorde izan zen, eta gero *Egunkaria*-ren sortzaile».

**IRITZIA Joseba Azkarraga**

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako sailburua

**Ohorez**

Ohorea, Martin. Ohorezko agurra, bai, zuri egin beharrekoa, beti azaldu duzun xalotasunarekin. Ohorea zure izen ona aldarrikatzeko, zure bizitzagatik eta gizatasunagatik. Ohorea, gaixotasunak hitza erabiltzea galarratzen zizunean zure izena zikitzeko saioa ofizialki eta jendaurrean gaitzesteko.

Hitza izan delako zure herria eta hizkuntza defenditzeko erabili duzun tresna handia, zure tresna bakarra. Horreegatik zara euskal kulturaren ikurretako bat, zure jokabide demokratikoagatik eta askatasunaren aldeko borrokaengatik duintasun eta koherentzia ereduaren modu berean.

Iritzi horiek bizi zinen bitartean plazaratu nituen, eta horregatik auzartzen naiz gogora ekartzera, berriro ere, zure heriotza fisikoaren orduan. Eta halaxe adierazten dut, zu bezalako pertsonak ez direlako inoiz joaten, nire ustez. Esango didazu, bai, zure laguna izateak ematen didan grinak bultzatuta ari naizela; baina, hori egia izanik ere, azpimarratu behar dut egia eta justizia nire sentimenduaren gainetik daudela.

Ezerez da zure konpromisoa baino egiazkoagoa, ezer ez azken orduan egin zizuten bidegabekeria salatzea baino zuzenagoa. Frankismoaren jazarpena jasan arren, inoiz ez zenuen askatasuna kendu zizutenekiko gorrotoaren zantzurik erakutsi. Ziur nahi herra ez zela zuzan sustraitu, ezta *Egunkaria* itxi zuten eta zu ere inputatu zintuen prozesurengatik ere.

Azken agurraren duintasuna kendu nahi izan dizute, eta nik hori salatu eta deitoratzen dut. Jakin dezatela, Martin laguna, ez dutela lortu. Eredua zara —eta izango zara— herri honentzat. Agur, jauna. Agur eta ohore.



**KULTURAN ETA POLITIKAN ENGAIATUA.** Eduardo Txillida, Xabier Arzalluz eta Juanito Zabalarekin, 1979an Bilbon egindako manifestazio batean.

**ARALAR**

**«Bizia herrigintzari eman dion pertsona galdu da»**

«Gure dolumina azaldu nahi diegu Martin Ugalderen senitateko eta gertukoiei haren heriotza dela eta. Euskalgintzan, kulturagintzan eta politikan, erbestean eta Euskal Herrian, bizi osoa Euskal Herriari eskaini dion pertsona baten galera izugarria dela azpimarratu beharrean gaude. Era berean, herrigintzan horrenbeste lan egin eta gero, azken urteetan, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutela eta nozitu behar izan duen egoera salatzen dugu».

**MIKEL ARANA** Ezker Batua

**«Mundu euskaldunarentzat galera handia da»**

«Euskararen normalizazioan egindako lan handia nabarmendu behar da orain. Ugalderen heriotza mundu euskaldunarentzat eta euskal kulturarentzat, oro har, galera handia da, alor horretan egin duen lanak erakusten duen moduan. 2002. urtean Euskaldun Unibertsalaren Saria jaso zuen gizonak bere azken urteetan *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxiera bizi izan zuen, fundatu eta hango ohorezko lehendakari izan zen egunkariaren itxiera».

**PERNANDO BARRENA** Batasuna

**«Abertzale guztien arteko elkarlana bultzatu zuen»**

«Topikoa bada ere, gaurkoan gizon handia hil zaigu Euskal Herrian. Martin Ugalde joan egin zaigu, baina gurekin utzi du bere bizitza osoko lekukotasuna; ez bakarrik literatura edo euskalgintzan, nik abertzale moduan nabarmendu nahiko nuke: Ugalde beti izan da abertzale guztien arteko elkarlana bultzatu eta babestu nahi izan duen pertsona, eta hori da, nire uste apalean, egungo Euskal Herriari behar duen profila».

**IRITZIA Txillardeg**

Idazlea

**Agur!**

Aspaldisko honetan Martin larriki gaixoturik zegoela denok jakin arren, kolpe latza izan zaigu gaur goizekoa.

Hitz batzuk bederen idazteko eskatu didazue. Nola ukatuko?

Baina labor jokatu beharrak areago zailtzen dit egitekoa.

Martinek eta biok izkribuz lehenagotik elkar ezagutzen baguenen ere, Tarnosko gure etxean (Baiona ondo-ondoan, beraz) mintzatu ginen buruz buru lehenengo aldiz 1970. urtean. Burgosko Epaiaketa ari zen mamitzen, eta nik ez neukan Ipar Euskal Herrian finkatzeko eskubiderik.

Caracasetik etorri berria zen bera, eta Bruselatik etorri berria ni. Eta beti bide desberdinetatik ibilirik ere, adiskide on ginen orduan, eta adiskide on egon gara gaur arte.

Ororen gainetik, Martin euskaltzalea zen. Eta abertzale sutua, hortaz. Bihoa hau aurretik.

1961ean bere *Itzaleak* argitaratu zuenez geroztik, gero eta

garbikiago agertu da Martinen atxikimendu iraunkorra euskararekiko. *Euskaldunon Egunkaria* proiektuan buru-belarri sartuz garbi agertu denez.

Martinek erdaraz hasi zuen bere idazle lana: bai Literaturaren alorrean, bai Kazetaritzarenean. Eta biotan zeukan etorkizun dirdaitua Venezuelan.

Baina Martinek Euskal Herrira itzultzea erabaki zuen.

Bai abertzaletasunaren alde borroka egiteko (PNV-ren *Alderdi* hilabetekarian ari izan zen luzaz); eta baita, esana dagoenez, hizkuntzarenean ere.

Sorreraz —edo jaiduraz nahiago bada— gizon moderatua zen Martin. Ez zituen jarrera «erradikal» delakoak maite.

Baina jokabide «erradikal» delakoak hartzen zituztenak ulertzen (are maitatzen ere) saiatzen zen. Joera honen lekuko dugu, adibidez, Lezo Urreztieta «guerrillari» iraunkorriari eskaintako lana. Baina besterik ere aipa litezke.

Arzalluz-Garaikoetxea erdibiketaren garaian, EAren hautua egin zuen Martinek. Eta hau ere adierazgarria da.

Lerro hauek idatzita, joan zaigun Martin Ugalde nolakoan zen hobeki uler dezakete bera zuzenean ezagutzeko aukera izan ez dutenek. Agian bai!

**MARTIN UGALDE** 1921-2004

«Ez dut bilatzen perfekziorik. Nik nahi dut izan normala. Badakizu zeren hainbeste jende ikustea itsu, ero... eta zuk bi begi edukitzea, burua?»